

Familia Abeltzaintza eta Abeltzaintza Kooperatiboa Eraldatzeko Proiektua



Kantabria, Katalunia, Euskadi eta Nafarroako 25 erakundek familia-abeltegien jasangarritasuna eta esne-ekosistemaren ekoizpen-prozesua hobetzea xede duen aliantza sortu dute

- Familia-abeltzaintza eta abeltzaintza kooperatiboaren eraldaketa jasangarrirako proiektuak Kaiku Berdea, Llet Nostra Més eta AGC Agrocantabria Sostenible ditu buru.
- Partzuergoa osatu duten 25 erakundeen artean, esne-produktuen elaborazio-prozesuaren balio-kateko partaide diren abeltzainen kooperatibak, I+G+b-ko zentro teknologikoak, kudekaketa-zentroak eta industria-sektorea ordezkaturak daude.
- 100 milioi eurotik gorako inbertsioa aurreikusi da 2026ra arte 603 familia-ustategi eta kooperatiba baino gehiagoren ingurumen-aztarna murrizteko, jasangarritasuna hobetzeko eta lehiakortasun ekonomiko eta soziala sustatzeko.
- Proiektuak familia-ustategiek landa-ingurunean eragindako onurak nabarmendu ditu: paisaia antolatuta mantentzea, suteak saihestea, baso-masaren kontrolik eza geldiaraztea, biodibertsitatea sustatu eta errespetatzea eta, aldi berean, paisaiaren orekari eustea.
- Ekimenak Europako Batzordeak 2030era begira ezarritako helburuen inguruko berriazko neurriak aurreikusi ditu, industria eta logistika prozesuak hobetzeko asmoz: CO2 isurpenak % 60 murriztea NetZero 2050 konpromisoaren harira; uraren kontsumoa % 45 gutxitzea, eta ekonomia zirkularra bultzatzea, sortutako hondakinak % 50 murriztuz, material biodegradagarri berriei buruzko ikerketaren aldeko konpromisoarekin batera.
- Proiektuak Kantabriako Gobernua, Kataluniako Generalitatea, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren babesa du.

Karrantzan, 2022ko urtarrilaren 19an. Kantabria, Katalunia, Euskadi eta Nafarroako familia-abeltzaintzak ingurumenaren, ekonomiaren zein gizartearen ikuspegitik duen

Familia Abeltzaintza eta Abeltzaintza Kooperatiboa Eraldatzeko Proiektua



jasangarritasuna hobetzen laguntzea da familia-abeltzaintza eta abeltzaintza kooperatiboaren eraldaketa jasangarrirako proiektuaren helburu nagusia.

Ekimenak esne-ekoizpenaren kateko maila guztiak ordezkatzeko dituzten 25 erakunde bildu ditu, lau autonomia-erkidegoetako I+G+b-ko zentro teknologikoak, kudeaketa-zentroak eta industriaguneak tarteko direla. Proiektuak Kaiku Berdea euskal konpainia, Llet Nostra Més kataluniarra eta AGC Agrocantabria kantabriarra ditu buru.

Ekimen honen barruan, 100 milioi eurotik gorako inbertsioa aurreikusi da 2026ra arte, ingurumen-jasangarritasunaren aldeko eraldaketa gauzatzeko helburu eta konpromisoari begira, Europako Batzordearen 2030eko agendan ezarritako helburuekin lerrokatuta. Hartara, hainbat neurri planteatu dira Kaiku Berdea, Llet Nostra Més eta AGC Agrocantabria Sostenible ekosistemetakoen enpresen industria-prozesu eta logistikaren ingurumen-aztarna murrizteko asmoz.

2027an, ekoizpen eta logistika prozesuari lotutako isurpenak % 60 murriztea espero da NetZero 2050 konpromisoaren ildotik, uraren kontsumoa % 45 gutxitu, ekonomia zirkularra bultzatu eta sortutako hondakinak % 50etik gora murrizteaz gain.

Aldi berean, ekimenak atxikitako 603 familia-ustiategi eta kooperatiben jasangarritasun ekonomiko eta soziala hobetzen lagunduko du, izan ere, urtean 337 milioi litro esne baino gehiago ekoizten dituzten ustiategi horien eginkizuna giltzarrizkoa da landa-ingurunerako, kontsumitzaileari kalitatezko esne eta esnekien hornidura ziurtatzeko konpromisoari oratuta.

Mota honetako familia-ustiategiek eta kooperatibek eragin positiboa dute ingurumenean, izan ere, horietan egindako lanak biodibertsitatea zaintzen eta paisaiaren orekari eusten laguntzen du, suteak saihestuz eta baso-masaren kontrolik eza geldiaraziz. Horrez gain, ekonomia zirkularren zikloan parte hartzen dute, landutako lurak sortzen dituen baliabideak zein ustiategietako hondakinak baliatuz.

Familia-abeltegiak landa-eremuko populazio-guneak biziberritzen laguntzen dute, izan ere, ustiategi horiei esker, bizi-bizirik mantendu ahal izan dira azken urteotan industria-eremuetarako migrazioa (batez ere gazteena, lan-aukeren eskaintza handiagoak erakarrita) jasan duten populazio-guneak.

Familia Abeltzaintza eta Abeltzaintza Kooperatiboa Eraldatzeko Proiektua



Testuinguru honetan, familia-abeltzaintzaren eta abeltzaintza kooperatiboaren eraldaketa jasangarrirako proiektuak mota horretako ustiategiek egindako lana nabarmendu eta atxikitako lau autonomia-erkidegoetako zentro teknologikoak batu ditu, abeltzaintzaren bakoitzean lehiakortasuna bultzatu eta belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko hartu beharreko neurriak ezarri ahal izateko.

Proiektuak zeharkako ikuspegitik helduko dio sektorearen eraldaketa digitalari. Horrela, azpiegitura teknologiko berriak, automatizazioa eta adimen artifizialeko zein datu-adimeneko aplikazioak erabiliz, instalazio guztien ekoizpen-eraginkortasuna eta errentagarritasuna hobetuko ditu, ingurumen nahiz gizarte jasangarritasunaren mesedetan.

Azken batean, proiektuak konpromisoa eta ahalegina uztartuko ditu etorkizun hobearen lortzen laguntzeko, abeltzaintza arloko ekoizleak, industria eta gizarte integratuz eta horien arteko lankidetzaren bultzatuz, funtsezkotzat jotzen den esnegintza sektorearen jardueraren ingurumenarekiko errespeturik zorrotzenez oinarrituta garatu ahal izateko.

Gaur Bizkaiko Karrantza herriko El Molino abeltzaintza-ustiategian aurkeztutako ekimenak askotariko eragileak bildu ditu:

- Abeltzaintza arloko kooperatibak: Kaiku euskal-nafarra, Llet Nostra kataluniarra eta AGC Agrocantabria kantabriarra.
- Esnegintza arloko industriak: Kaiku Elikadura Korporazioa euskal-nafarra, Euskadiko Iparlat, eta Llet Nostra eta Làctics Masachs kataluniarrak.
- Zentro teknologikoak: Euskadiko Neiker eta AZTI, Nafarroako INTIA eta Kataluniako IRTA.
- Kudeaketa zentroak: Euskadiko Abere, Abelur, Lursail, Lorra eta LurGintza eta Kantabriako CIFA ikerketa-zentroa.

Aurkezpenean izan dira Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Lehiakortasun eta Ingurumeneko Sailburua; Itziar Gómez López, Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumeneko Kontseilaria; Teresa Jordà i Roura, Kataluniako Generalitateko Klima Aldaketa, Elikadura eta Landa Agendako Kontseilaria, eta Guillermo Blanco, Kantabriako Gobernuko Landa Garapen, Abeltzaintza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Kontseilaria.

Familia Abeltzaintza eta Abeltzaintza Kooperatiboa Eraldatzeko Proiektua



V K Comunicació

Informazio gehiago:

Patricia Loredó Sierra

944 01 53 06 / 629 74 90 47

patricia@vkcomunicacion.com